

ALLERI

Alleriko 500 etxin eta Ondarruko hirigintzin inguruko aldizkaixe
2010eko abendu | 2. zenbakixe

Alleriko pasealekua urbanizatu, zertarako?

Alleriko paseoaren urbanizazioa etorkizuneko Alleriko etxeentzako ura, eletrizitatea, gasa... lur azpitik eramateko egin nahi zuen udal gestorak. Herritarrek obra hori ilegala zela salatu, eta gelditzea lortu zuten.

Baina orain udala berriro hasi da obrarekin. Ez du azpiegiturarik sartuko lur azpitik, baina paseoa urbanizatuko du.

Proiektua behin eta berriro aldatuta, udalak gauza bat laga du argi: bere helburua obra egin egitea dela, edozein kondiziotan, eta zertarako izango den zehaztu gabe. Euren helburua obra horretan diru publikoko 800.000 euro gastatzea da, obren eta eraikuntzaren euren negozioak aurrera jarrai dezan.

AURKIBIDI

- 2 - Paseoaren urbanizazioa
- 4 - Ura
- 6 - Zamarrak Allerin
- 7 - Hiri zabala ala konpaktu?
- 8 - mobiu!



PASEOAREN URBANIZAZIOA

Udal Gestorak Zaldupe Alleri paseoaren obrak hasi ditu baimenik gabe. Herritarren mobilizazioak gelditu ditu obrak.

herritar
batzuk Alleriko
bidin, biharginai
obrak gelditzeko
exijutea



2010eko irailaren lehen astean, Ondarroako udal gestora Zaldupe-Alleri pasealekuaren urbanizazioa hastea erabaki zuen. Beharginak tubo handiak sartzen hasi ziren lur azpian, Alleriko parean. Obra horren helburua Allerin egin nahi dituzten etxeentzako azpiegiturak padurara eramatea zen, nahiz eta etxeen proiektua behin behingoz geldituta dagoen, epaileen aginduz.

Horren aurrean, herritar talde bat eta Alleri Zainduu plataformako

kide batzuk Allerira joan ziren, langileei obrak ilegalak zirela esan eta gelditzeko exijituz. Egun horretan obrak bertan behera gelditu ziren eta plataformak konzentrazioa deitu zuen egun bi beranduagorako.

Handik bi egunera, obren kontrako konzentrazioan zeuden herritar batzuk eta plataformako kideek batzarra egin zuten obretako arduradunekin eta udaleko arkitekturekin. Plataformako kideek argi azaldu zuten obra horiek ilegalak zirela, eta ez zutela

behar besteko baimenik. Horren aurrean, udaleko ordezkariak honako proposamena egin zuen: paseoa urbanizatzea, baina lur azpiko azpiegiturak sartu gabe.

Plataforma asteburu horretan batzartu zen, eta udalaren proposamenari honako erantzun hau ematea erabaki zuen:

“Zaldupeko Zubitik Zaldupeko eskolaren atzeko zatiraino paseoa egokitzeko arazorik ez dagoela, baldin eta tramitazio legeletan beharrezkoak diren egokitzapen,

moldaketa eta zuzenketak egiten badira. Hortik aurrera (Anesutik Allerira) obrarik egitea ez da komenigarria, ez dagoelako baldintza egokirik, etxeen proiektua auzitegietan dagoelako eta horregatik ezin delako jakin proiektua azkenean zelan geratuko den, eta agian etorkizunean egindakoa moldatu edota desegin egin beharko delako.”

Plataformakoen eta herritarren helburuak hauek izan dira: ingurumena eta padura obretatik babestea, obra ilegalak ekiditea eta obrak baimenik gabe egitearren etorkizunean egon daitezkeen alperriko diru xahutzeak aurreikusi eta gelditzea (hau da, egindako obra desegiteko beste obra bat egin beharrik ez egotea).

Proposamen honen aurrean, Udalak bereari eutsi dio, eta paseoa urbanizatzen hasi da, nahiz eta lur azpiko azpiegitura gehienak ez dituen sartuko, ur hornidura bakarrik. Ura sartzearren arrazoia, Udalaren esanetan, egungo hodediariaren alternatiba bat eraikitzea da, matxurak

daudenerako. Baina hodi alternatibo horiek zergatik ez dituzte sartzen Kamiñazpitik Errenteriarako bidetik, merkeagoa eta ekolojikoki jasangarriagoa bada, bide hori jada urbanizatua baitago? Susmagarria iruditzen zaigu.

Horretaz aparte, paseoa egiteko beharrezko baimen guztiak ez dituzte lortu. Kostasek agindutakoari ez diote kasurik egin, eta Zaldu ibaia bere lehengo egoerara bueltatzeko ez dute ezer egingo. Gainera, Zaldupetik Allerirako obra egiten badute legeak hautsiko dituzte, leku horretan ere arau subsidiarioak zaharkituta daudelako. Gogoratu behar da, arrazoi berdinagatik daudela geldituta Alleriko 500 etxeak.

Dena dela, pausoz pauso, herritarren garaipen txikiak pilatzen doaz. Alleriko 500 etxeen proiektua behin

behingoz gelditzea lortu dugu eta pasealekuaren azpitik etxeentzako hornidurarik ez sartzea ere bai. Udal gestorearen gezurrak jausten ari dira eta hasierako euren arrokeria apaltzen doa. Pasealekuaren proiektua behin eta berriro aldatuta udalak zera erakutsi du, ez daukala proiektu zehatzik, eta bere helburua obrak egin egitea dela, obra horiek zelakoak eta zertarako izan behar diren kontuan eduki barik. Azken batean, dirua egiteko makina martxan mantentzea da euren helburua, eta diru publikotik 800.000 euro gastatuko dituzte paseo bat urbanizatzeko bakarrik. Ondarroak ez dauka beste premia handiagorik?

**800.000
euro gastatuko
dituzte paseoa
urbanizatzeko**



Etxeen proiektuak etenda jarraituko du

2010eko uztailean EAeko auzitegi nagusiak Alleriko 500 etxeen proiektua eteteko agindu zuen, Alleri Zainddu plataformak egindako salaketari jaramon eginda.

Horren aurrean, Udalak erabakia errekurritu zuen. Hala ere, EAeko auzitegiak ez du kontuan hartu errekurtsioa, eta 500 etxeen proiektuak etenda jarraituko du epaiketa egin arte.

URA

Ura bizitzeko elementu garrantzitsuenetarikoa da. Horregatik, bere ziklo osoa babestu egin beharko litzateke: padurak, ibaiak, akuiferoak, itsasoa. Baina Ondarroan uraren politika gero eta okerrago da.

DEPURADORAREN OBRAK

Urak garbitzeko araztegi bat daiteke zementuzko halako debaldeko ur horren ordeztzeko urteetan izan da Ondarroako egitura bat paduran? iturriko ur depuratua erabili behar herriaren eskaria. Azkenik, lortu dute. Momentuz akuifero hori ez du halako bat edukitzea, baina Gero, kolektore horretatik da berreskuratu eta auzokoei notizia ona izan behar zena Galtzuarango depuradorara ur ordaindutako ura erabiltzen zentzugabekeriaz betetako zikinak eramateko, Asterrika jarraitu behar dute. Txarrena da prozesua bihurtu da. Izan ere, azpiko lurrak zulatu zituzten. ez dela hau Ondarroan azken depuradora hori kostako Zulaketa horietan mendiko urteetan galdu den iturri natural haitzetan egin dute, eta ur zikinak akuiferoarekin egin zuten topo, bakarra. hara bidaltzeko kolektoreak ipini eta hau apurtu eta hustu egin behar izan baitituzte herrian zuten. Asteak egon zen zuloa ura zehar. Kolektore hauetako bat bota eta bota, eta agintariek ez dute, eta obra horren zuten ezer egin isuria gelditzeko. egunen batean hor bertan edota legezketasuna zalantzarria Ur putzua urik barik geratu zen. hodiren batean zerbait apurtzen bada, ez dago ur zikina errekarara erabiltzen zuten euren nekazaritza eta padurara botatzeko zentzugabea dela. Zelan egin eta abeltzaintza laneratako. arriskurik? Isurketa horiek nola eragingo liokete padurari?



Depuradorin kolektora padura erdixan



Padurik ure garbitzen dau, bakteixan bittartez

DEPURADORA NATURALA

<p>Ondarroako depuradora berriarekin hobetzea espero da. Dena dela, kontraesana da depuradora artifizial bat egin ostean depuradura natural bat nahi izatea, 500 etxe eginda ere, Alleriko padurak garbitzen du modu naturalean.</p>	<p>Paduretako bakterioek uretan dauden organikoak desegiten dituzte eta ura garbitzen dute. Baita etxeetatik botatako ur zikinak ere. Esan beharrik ez dago, honetara garbituta energia asko aurrezten dela, prozesua naturala baita.</p>	<p>Prozesu honen onurak ikusita, Kataluniako hainbat herritan padura artifizialak sortzen hasi dira. Ontzi batzuetan paduretako landareak, lurra eta ura ipintzen dituzte, eta bertara botatzen dute etxeetako ur zikina. Lortu dituzten emaitzak ikusgarriak dira, uretako material organikoak %90ean gutxitzen baitituzte.</p>
--	---	--

ZAMARRAK ALLERIN

Udalak eztau ixe ein beran lurretan agertu dizen zamarrak jasoteko. Udan erreta agertu diz.

2010eko apirilean Alleri Zainddu plataformak salaketa bat sartu zuen Ondarroako Udalean. Agiri hartan aipatzen zen Alleriko padura babestuan Udalak dauzkan lur batzutan zaborra (egurrak, plastikozko ontziak...) zegoela pilatuta. Ondarroako udaltzainek gertakari horren atestatua jaso zuten plataformako kideen exigentziaz.

Bi hilabete beranduago, zaborrek bertan jarraitzen zuten. Eta ez hori bakarrik, zabor piloa lehen baino handiagoa zen. Egun gutxira, norbaitek sua eman zien zabor horiei, leku horretan bertan. Erretako hondakinen artean, plastikozko materialak ageri dira. Hondakin horiek lurra kutsatzen ari dira, eta zenbat eta denbora gehiago egon bertan gehiago kutsatuko dute, euriak lur azpira filtratuko baititu gai kutsagarriak. Alleriko beste leku batzutan ere bota ditzuzte zamarrak eta egin dute sua.

Udalak ez du ez zamarrak jaso, ezta erre ondorengo hondakinik erretiratu ere. Horrek erakusten du udal honek zelako interes gitxi daukan padura zaintzeko.



Allerin zamarrak agertu zin udabarrizan, udalan lurretan



Udan zamarrak erre ein doittuez



HIRI ZABALA AIA KONPAKTU?

GAUR EGUNGO HIRIXAK: Azkanengoko urtitan hiri eredu bat zabaldu de leko askotan. Eredu horretan, bi fenomeno emon diz. Batetik espazixuk espezializa einddiz, hirixe ordenaua euki ahal ixateko. Gauza bakotxe hiriko leku batea erun de, biharreko lekuk poligonuta, bixilekuk auzo residentzialeta, dendak zentro komertzialeta... Bestetik, hirixak gerua eta zabalauak bihurtu diz, estensibuaauak. Asfaltu zelaixak jan eta jan jun de, beran azpitan zer hartzeban kontutan euki baik. Baine honen hiri ereduonen kaltik gerua eta argixaua ikusten diz, eta gerua eta kritika gexaua entzuten diz:

KRIKA EKOLOGISTI: Espazixo bat zemat eta espezializaua eta zemat eta zabalaua, garraiobidin erabilpena be hazi eitten da, gauza bakotxe punta baten dalako. Ikusi besteik ezta azkanengoko urtitan kotxin erabilpena zemat gehittu dan: biharrea juteko, erosketak eittea juteko, asteburu pasatea juteko... Horrenbeste kotxek ingurumena kaltetzen dau, baine baitte geure osasune be.

Horretaz aparte, hirixak hazi diz nekazaritza lur aberatsenan gainin, ibaixan eta paduran gainin... horren ondorixuk argixak diz, gerua eta nekazaritza lur gitxia dakau eta errixukin dakauzen arazuk gerua eta handixauak diz.

KRIKA FEMINISTI: Hiri espezializau eta zabala

gixonantzako einddaku de. Biharrea kotxin jun, biharretik kotxin buelta ein eta etxin dana eindde topaten daben gixonantzako. Horrek gixonorrek biharrea jutiaz aparte, etxi jaso, jateku ein, umik zainddu eta erosketak ein biko baleukez konturatuko litxake egunintzir zemat buelta emon biko leukezen leko batetik bestea juteko.

Baine normalin emakumik diz horrek bihar gexenok eitten doittuezenak, eta datuk argixak diz: gaur egungo hirixetan emakumik ordo gexa pasaten dabe leko batetik bestea juten, gixonak baino.

Horren aurrin, feminismuk beste hiri eredu bat proposatu dau, bixilekuk, biharreko tokixe, dendak eta denpora libri pasateko tokixak ahalik eta urrien egongo dizen hirixe. Emakumin eta gixonezkun ardurak banatu eta bai batzuk eta bai bestik denbora libre gexaua eukitxeko, eta trankilaua bixitxeko.

MUGIMENDU SOZIALAN KRITIKI: Hirixe jenti batzeko espazixo publiku ixatetik jenti banatzeko espazixo pribau ixatea pasa da. Biharretik zentro komertzialea, eta hortik etxea, norberan kotxetik urten baik eitten dou, espazixo pribautatik urten baik. Eta kalik gerua eta hutsaua daz, eta kalik gerua eta hutsaua badaz gerua eta gatxaua da jentiana ailati, eta diskurso ofizialetik kanpo dazen iritxizak erakutsi ahal ixati be bai. Espazixo pribau sartzeko aukeri dakarrenan

mezu zabaltzen da bakarrik (telebisinoi, propagandi...).

ETA ONDARRUN ZER? Ondarru, beran orografixi dala eta, hiri oso konpaktu de, ez oso estensibu. Kale gitxi daz eta komertzixuk, aisialdirako lekuk... danak antzeako lekutan batzen diz. Ondarrun erosketak eittea urteten dabenak eztau oinez asko ein bir etxetik denda ailateko, eta bide batez trago bat be hartu ahal dau kalin topaten daben lagunaz, edo kalin dazen kartelak ahal dotxuz irakurri eta herriko nobedadikin entera.

Baine etorkizuneako Ondarrurako eta eskualdeako planifikata dazen proiektu urbanistikuk hiri gerua eta zabalaua eta espezializaua lortu nahi dabe. Zentro komertzialak, auzo barrixak... Alleriko proiektuaz, adibidez, 500 etxe ein nahi diz paduran, herriko punta baten eta errixun beste aldin. Auzo residentzial barri bat, herrixaz komunikazinoirik baiku, Kamiñazpirako zubirik ezinddalako ein. Horko familixak kotxin edota beste garraio batzun menpe egongo litxakez egunero, bai eskola juteko, bai biharrea, baitte erosketak eitteko be.

Baine guk Ondarrurako beste hiri eredu bat nahi dou. Herri barrun dazen etxe hutsak eta erabili baiko espazixuk aprobetxata, espazixo publikuk inddartuko geunkez, herrixai bixitxasune emongo gentsake, eta herritarrai biximodu onaua eskeini.

MOBIU!



DANON ARTIN PARAKOU!

Laster mobilizazinoi gehixa. Adi egon!
Eta zeuk be zeure era, pentsa eta ein.

WWW.BLOGAK.COM/AIERI

